

Ktouch aplikazioa

Ktouch mekanografia ikasteko programa libre bat da, teklatuaz azkar eta zuzen idazten erraz ikasteko modukoa. Momentu bakoitzean zein tekla zapaldu behar den adierazten du tekla hori kolore desberdin batez bereiziz. Mailaka banatzen da irakurgai bakoitzean idatzi beharrekoa eta maila bakoitzean tekla berriak gehitzen joaten da.

Irakurgai desberdin asko ditu, hizkuntza desberdinetan trebatzeko. Irakurgai berriak norberak gehitzeko aukera ere eskaintzen du eta lehendik daudenak aldatzekoa ere bai. Teklatuarekin ere gauza bera gertatzen da. Teklatu mota asko daude eta momentu bakoitzean erabiltzaileak nahi duena aukera dezake. Horrez gain, hauek aldatu edo berri bat sortzeko aukera ere eskaintzen zaio erabiltzaileari.

Edozein momentutan ikus dezake erabiltzaileak zenbateraino ondo tekleatzen ari den, zein teklarekin dituen arazoak, zenbaterainoko azkartasunez ari den& Hau da, estatistikak ikus daitezke, momentuko saiokoak eta baita, momentuko mailakoak ere. Programa erabiltzen hasten den momentutik orain arteko estatistiken grafikoak ere bertan ikus daitezke.

Erabiltzaile desberdinek lan egiteko ere prestatuta dago programa hau. Hasiera batean erabiltzaile lehenetsi batekin hasten da eta edozein momentutan erabiltzaile bat sortu edo momentukoa aldatu daiteke.

Erabiltzaileak bere gustuko koloreak ezarri ditzake. Lau kolore eskema desberdin daude teklatuaren koloreak aldatzeko. Horrez gain, teklatuaren eta irakurgaien letra motak eta kolorea aldatu daitezke, akatsak egitean soinua atera dezan eta koloreak alda daitezzen konfiguratu daiteke.


Historia pixka bat gainbegiratzeko, KTouch programarekin 2000. urtean hasi zirela lanean esan behar da. KTouch programaren momentuko programatzaile eta kudeatzailea Andreas Nicolai da. Urtez urte gauza berriak gehitzen joan dira programan azaldutako guztia betetzen duen softwarea lortu arte. Adibide bezala, 2003. urtean teklatuaren kolore eskema desberdinak gehitu zitzaizkion, estatistikak ikusteko aukera erantsi zitzaion, irakurgaiak aldatzeko aukera eskaini zen&

Guk hartutako bertsioa 2005eko irailean EHUko ikasle batek utzitakoa izan zen. Honek, euskararako lokalizatu zuen KTouch eta beste eginkizun batzuen artean erabiltzaile desberdinek

erabili ahal izateko moduan jarri zuen. Bertsio horretatik aurrera abiatu ginen.

Izatez GNU/Linux sistema eragilean funtzionatzen duen programa da, baina Donostiako informatika fakultatean, Windows sistema eragilean lan egiteko moduan jarri da. Lan hori Usoa Perez Uribek egin zuen 2007. urtean Joseba Makazaga eta Ana Arruarteren zuzendaritzapean.

Aplikazioaren itxura honakoa da:



3. irudia: *Ktouch* programaren interfazea

Programaren instalazioa eta exekuzioa

CDan programaren kodeaz gain, testu fitxategi bat dago: *Instalazioa.txt*, bertan programaren instalaziorako pausoak zehaztuta daude.

Erabilpen-gida

Sistamarako sarrera

Ktouch programaren sarrera oso erraza da. Hiru kasu bereiztuko dira:


1. Lehenetsitako erabiltzailea zara: Sistema Eragileko kontua zurea da.
2. Ez zara erabiltzaile lehenetsia, baina jadanik noizbait ibili zara.
3. Erabiltzaile berria, zure kontua ez dago sortuta.

1. Lehenetsia:

Kasu honetan ez da inolako hasieratze berezirik behar, programa exekuzioan jartzen duzunean, zure kontua zabalduko da, eta beste saioen bat egin baduzu, honetako edo hauetako estatistikak jasoko dira lehenik zuk ezer egin gabe. Konputagailu batean aplikazioa pertsona bakarrak erabiltzen badu, erabiltzaile berririk ez sortzea da aukera egokiena, alegia, erabiltzaile lehenetsiarekin lan egitea eta beste aukerei kasurik ez egitea.


2. Beste erabiltzaile zaharra:

Makina berean erabiltzaile bat baino gehiago baleude, aplikazioa martxan jartzen duzunean zure kontua zabaldu beharko duzu, bestela lehenetsitako erabiltzailea bazina bezala jardungo duzu, beraz ez dira zure datuak gordeko.



15. irudia: Erabiltzailearen menua

Erabiltzailearen menuan Erabiltzailea Aldatu aukeratu beharko duzue, eta ondoren zure izena nahiz pasahitza sartu beharko dituzue 16.irudian adierazten den bezalako interfazean.



16. irudia: Erabiltzaile aldaketa

Izena nahiz pasahitza modu egokian jartzen badituzue zure kontuan sartuko da eta zure estatistikak jasoko ditu.

3. Erabiltzaile berria:

Azken kasu honetan, sistema martxan jarri ondoren, 15.irudiko menu berbera zabaldu

beharko duzu, baina kasu honetan Erabiltzailea Sortu aukeratuz.

Ondoren, aterako den interfaze grafikoan zure izena eta nahi duzun pasahitza jarri eta erabiltzaile kontu berriari sartuko zara.

Errore mezuren bat ateratu daiteke izen hori jadanik erabilia badago, kasu honetan beste izen bat aukeratzearekin nahikoa da.

Trebatzen hasi


Behin programa abiarazita, edozein erabiltzailerentzako funtzionamendua berdina izango da.

Sistema automatikoki sartuko da azken aldiz erabili zenuen irakurgaiari (adibidez, ingeleraz teklatzen ikasteko testuak, euskaraz teklatzen ikasteko testuak, euskaraz teklatzen trebatzeko testuak, etab.) eta azken aldiz landu zenuen mailan.

Zuk nahi duzunean has zaitezke teklatzen, lehenengo tekla sakatu arte denbora ez da aurrera joango.


Akats bat egiten duzunean, testuko azpiko aldea gorri jarriko da abisu moduan. Kasu honetan, atzerako botoia sakatu beharko duzu, eta akatsa sortu duen karakterea zuzendu; hau eginda dagoenean, kolore gorria desagertuko da, eta trebakuntzarekin jarrai dezakezu.

Nahi duzun momentuan gelditu dezakezu denbora edo berriro ere martxan jarri. Gelditzeko nahikoa da botoia (1) erabiltzearekin, eta martxan jartzeko edozein tekla sakatzearekin.



Maila aldatu

Uneko maila zuretzat desegokia iruditzen bazaizu, altuegia edo baxuegia delako, nahi izanez gero igo edo jaitsi dezakezu menuko botoiekin, hauek sakatzean mezu bat aterako da maila aldatzearen berri galdetzeko; mezu bera aterako da maila gainditzen baduzu.



18. irudia: Maila eskuz igo edo jaisteko

Irakurgaia aldatu


Lantzen ari zaren irakurgaia aldatu nahi baduzu zuretzat egokiagoa den beste batean trebatzeko, menuko trebakuntza botoiarekin (17.irudiko (2) botoia) aterako den azpi menuko azken aukeraren gainean jarritz gero beste azpi menu bat aterako da. Menu honetan eskuragarri dauden irakurgaiak agertuko dira.

Nahi duzun irakurgaia teklaturaz gero, irakurgai horretako lehen maila prestatuko du programak, zuk teklea dezazun.


Estatistikak kontsultatu

Edozein momentutan kontsulta ditzakezu zure estatistikak menuko botoia sakatuz (17.irudiko (3) botoia).


Hau sakatuz gero interfaze grafiko bat aterako da zure estatistikak aurkeztuko dituen. Honetan, 4 orrialde azaltzen dira datu ezberdinekin: uneko saioko estatistikak (19.irudian ikusten dena), azken mailako datuak (20.irudia), historiala (21.irudian ageri da) eta ikasleak bata bestearekin nahasten dituen tekla bikoteen zerrenda (7.irudian agertzen dena).



19. irudia: Saioko estatistikak erakusten dituen interfazea



20. irudia: Mailako estatistikak erakusten dituen interfazea



21. irudia: Egindako saio nahiz maila guztien estatistikak modu grafikoan aurkezten dituen interfazea, erabiltzaileak aukeratzeko erabilgarriak dituen ikusi nahi dituen datuak

Itxura aldatu

Pantaila nagusiaren itxura aldatu nahi baduzu Ezarpenak azpi menua erabili beharko duzu (17.irudiko (4) botoia). Honekin teklatu birtualaren kolorea, letra mota nahiz teklatu mota alda ditzakezu.